

EUSKO JAURLARITZAKO MERKATARITZA ETA TURISMO SAILBURUORDETZAREN MARKETIN PLANEAN ZEHAZTUTAKO ESPERIENTZIA PROGRAMA EZARTZEKO BULEGO TEKNIKO BATEN KONTRATAZIOA

AURREKARIAK

Merkataritza eta Turismo Kontseilariordetzak 2012-2013rako prestatutako marketin-planari dagokionez, produktuarentzako taktiken testuinguruan hainbat jarduera-ildo identifikatu zituzten Operazio Planean egiteko. Ondorengo hauek dira jarduera-ildoak eta horietan oinarrituta egongo dira bulego teknikoaren funtzio nagusiak:

1. PE – ESPERIENTZIA GOGOANGARRIEN SISTEMA SOFISTIKATU BAT GARATZEA

11pt.- Euskadiko 20 TOP esperientziak garatzea.

12pt.- Euskadiko 10 TOP playground-ak eta 10 TOP zirkuituak aurkeztea.

13pt.- Hiru hiriburuetakoko esperientzia-programa garatzea.

3. PE – IRAUPEN LUZEAGOKO BISITA GEHIAGO EGITERA BULTZATZEN DUTEN PROPOSAMENAK GARATZEA

32pt.- “Euskadi asteburua”, “Euskadi zubiak” eta “Euskadi oporrak” kontzeptuak garatzea.

33pt.- “Gozatu Euskadi” gida hilero argitaratzea.

2011n eginiko jarduerak

I. FASEA – 2011ko martxoa-abuztua

- 1- 2010eko ebaluazio-sisteman zehaztutako TOP esperientziak abian jartzea (hiriburuetakoko esperientzia-programa barne), playground-ak dinamizatzea eta proposatutako zirkuituak indartzea.
 - Esperientziei, playground-ei eta zirkuituei dagokien informazioa homogeneizatzea eta eguneratzea.
 - Playground-ak kudeatzeko dosierra prestatzea.
 - Esperientziei jarraipena eta kontrola egiteko eredu zehaztea eta abian jartzea.
 - Turismo-atarian lehendik sustatutako esperientziei ikuskapenak egitea.

II. FASEA– 2011ko iraila-abendua

- 1- Esperientziak sortzeko eredu berritzea esperientzia berriak sortuta, lehengoak hobetuta eta abar, eredu berritua 2012an ezartzeko. Esperientzien bigarren txanda egitea.

III. FASEA– 2011ko iraila-abendua

- 1- Asteburuetarako, zubietarako eta oporretarako planak sortzea esperientziak eta turismo-baliabide nagusiak egituratzeko, 2012. urteari begira horien sustapena egite aldera; bai baliabideen plana kudeatzeko, bai sormen-lanak garatzeko.

BULEGO TEKNIKOAK BETE BEHARREKO FUNTZIOAK

2012rako ezarritako jardueren artean, ondorengo hauek izango dute lehentasuna:

- 2011ko urrian egindako bigarren txandan lortutako esperientziak aintzat hartuta, edukiak egituratzea eta abian jartzea, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak identifikatutako sustapen-bideetan horien balioa agerian jartzeko.
- Izan litezkeen esperientziei jarraipena egitea, horiek gauzatzeko/abian jartzeko datak eta gutxi gorabeherako aurrekontua ezartzeko.
- Esperientziei jarraipena eta kontrola egiteko eredua hobetzea eta indartzea, horrek esan nahi duen guztiarekin.
- Esperientzien ikuskaritzako eta jarraipeneko lanekin urteko kronograma egitea, eredua indartzeko. Hor sartuko dira urtebeteko testuinguruan sustatutako edo aktibo dauden esperientzia guztiei dagozkien deiak egiteko lanak, horrela, bilakaera aztertzeke.
- Bigarren txandako esperientziak zehaztutakoan, horiek gauzatzeko eta lehendik daudenekin taldekatzeke lan egitea eta TOP direnen eta ez direnen zerrenda egokitzeke eredua garatzea.
- Esperientziei, playground-ei eta zirkuituei lotuta sektore publikotik eta pribatutik jasotzen diren kontsultei erantzutea.
- Asteburuetarako, zubietarako eta oporretarako planak sortzea esperientziak (2010ean eta 2011n eginiko bi txandetan garatutako materiala barne) eta turismo-baliabide nagusiak egituratzeko, 2012. urteari begira horien sustapena egite aldera; bai baliabideen plana kudeatzeko, bai sormen-lanak edo horietan oinarritutako sustapen-ekintzak garatzeko.
- Beharrezkoa irudituz gero, esperientzien hirugarren txanda kudeatzea abian den urtean (2012) eta zirkuituak egokitzea eta sortzea; hori ere behar izanez gero.
- Eskualdeetako kudeaketa-erakundeei jarraipena egitea eta laguntza eta koordinazioa eskaintzea playground-ak prestatutako dossierrean oinarrituta abian jar ditzaten.
- Esparru-dokumentu bat egitea, “produktu-klubaren eskuliburua” motakoa. Dokumentu horretan sartuko da lehendik sortutako dokumentazio guztia eta sortzen den dokumentazio berria, modu koherentean egitura dadin eta 5 ardatzen ikuspuntutik beharrezkoak diren atalekin osa dadin, produktuari, turismoguneari, planaren plangintza eta kudeaketari, sustapen eta merkaturatzeari, berrikuntzari eta trebakuntzari dagozkion jardueri erreferentzia eginez.
- Eskualdeetako kudeaketa-erakundeen edo esperientzietako kudeatzaileen kudeaketa-lanak errazteko eta arintzeko beharrezkoa den dokumentazioa sortzea, esperientziak produktu-klubaren testuinguruan garatzeko eta abian jartzeko.
- Merkaturatzeko lanetan laguntza eta aholkuak eskaintzea Turismoaren Euskal Agentziak dituen zalantzak argitzeko eta kontsultei erantzuteko.

GAINBEGIRATZEA ETA KONTROLA

Turismo Sailburuordetzaren ardura da, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren bitartez, bulego teknikoak egingo dituen lanak zuzenean eta era jarraituan koordinatu, ikuskatu eta zaintzea. Helburu horretarako, enpresa esleipendunak (kudeaketa taldea) edozein lan fase edo prozesuren azterketa emango du, eta programatutako jardueren gauzatzearen segimendua egiteko bileren egutegia ezarriko du. Programatutako jarduera horietan izango dira tartean diren erakundeetako agenteak, BASQUETOUR agentziak zehaztuko dituenak.

BASQUETOUR agentziak laguntza emango dio esleipendunari; duen informazioa emango dio, eta elkarlanean arituko dira, berarenak ez diren informazio iturrietarako sarbidea lortze aldera.

BASQUETOUR agentziako ordezkari batek zuzenduko ditu lanak, eta ordezkari horrek berak gauzatuko du koordinazio eta gainbegiratze lana ere. Halaber, esleitutako proposamenari edozein aldaketa egiteko BASQUETOUR agentziaren onarpena izan beharko da, eta agentzia horrek edozein unetan aldaketak adieraz ditzake laneko zuzentzarauetan.

LANAREN JABETZA ETA BABESPEKOTASUNA

BASQUETOURren jabetzakoak bakarrik dira txostenak eta haietan barne hartu diren datu guztiak, bai eta horietatik eratorriko direnak ere.

Era berean, babespekoak izango dira, eta ezingo dira argitaratu, ez osorik ez eta haien zati bat ere, eta ezingo dira bestela erabili, aldez aurretik BASQUETOURrek idatzizko berariazko baimena ematen ez badu.

Esleipendunak ezingo du egin, inolaz ere, proiektuen inguruko adierazpenik jendaurrean, aurrez BASQUETOUR agentziak horretarako berariazko baimena ematen ez badu.